**XABIER LETEREN OMENEZKO KONTZERTUA**

Gurutzen, 2020ko irailaren 12an

HABANERA

PROPORTZIYO BAT

LANGILE BATEN SEME

ERROTA ZAHARRA

IZOTZ ONDOKO EGUZKI

NI NAIZ

ALTZATEKO JAUN

KONTRAPAS

HAIZEA DATOR

LORE BAT, ZAURI BAT

ITSASOAN URAK HAUNDI

NAFARROA ARRAGOA

GIZON ARRUNTAREN KOPLAK

GIZA ABEREA

NEGU HURBILAK

IZARREN HAUTSA

SEHASKA KANTA

XALBADORREN HERIOTZEAN

NAGUSIYA TA MAIZTERRA

## HABANERA

Berriro itzuliko balitz
iragan denbora arrotza
berdin kontsumi nezake
banilla gozo artean,
itsaso urrun batetan
irudimena galdurik
udaberriko euritan
larrosak pizten ikusiz.
Osaba komertzianterik
ez nuen izan Habanan,
pianorik ez zegoen
bizi nintzen etxe hartan,
neskatxen puntilla fiûak
udako arratsaldetan,
errosario santua
neguko gela hotzean.

Ezpainek gordetzen dute
ezpain bustien gustoa
desiozko hotzikaran
etsipenaren tamalez,
gaua zelatan dakusat
kontzientzia bilutsik
badoaz orduz geldiak
gogorapenen hegalez.
Jaio ginen, bizi gera
ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro
kaiatik ari da urruntzen.
Antillak zintzilik daude
argazkien paretetan
karta bat idatziko dut
norbaitek erantzun dezan.

Tabako, ron ta kanelaz
girotutako arratsetan
algarak entzuten ziren
Habanako putetxetan,
abanikodun mulatak
gauari haize egiten
musiken aide nagiek
odola erretzen zuten.
Jaio ginen, bizi gera
ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro
kaiatik ari da urruntzen.
Antillak zintzilik daude
argazkien paretetan
karta bat idatziko dut
norbaitek erantzun dezan.

AURKIBIDEA

## PROPORTZIYO BAT

Mixiolari baten moduan
jun dan lau hilabetian
nabil ejenplu ona ematen
inuxentien tartian
txorakeriyan ibilli giñan
sasoi genduen artian
allegatu naiz hirurogehita
hamabigarren urtian
zer lastima dan ezkondu gabe
sartu biharra lurpian.

Proporziyo bat izandu nuen
erdi zahartu ta gero're,
neskatxa batek: «Txirrita, biyok
esposatuko gerade;
ditudan gauzak eta diruak
zutzat izango dirade,
edo bestela, azken fiñian,
penetan hilko zerade
guraso zarren mobimentua
nola dan ikasi gabe».

Esan bezela neskatxa horrek
eman zidan albistia,
errespuesta aditu arte
larri egon zan tristia:
«Alde batetik pena hartzen det
zu modu hortan uztia,
baña zahartu naz, ezta posible
lan horiyetan hastia;
borondatia ixtimatzen det,
eskerrik asko, gaztia».

Aixkide batek esan dit neri
Donostiya'ko partian:
«Iya lazuan sartu ziñuzten,
etzabiltza apartian;
neskatxa horri ez kasorik egin,
utzi zaiozu pakian,
goizero han da botillarekiñ
Amueneko atian,
litro erdi bat pattar biaute
ama-alaben artian».

Ardua ere kastatzen dute,
ez aguardienta bakarrik,
bazkalduta're kaferik gabe
ez da hartutzen pattarrik;
ez Donostiya'n jaiotakorik,
hain gutxi goierritarrik,
bere burua hola ofrezitzen
ez dabil neska jatorrik;
baño gaxuak nere kontura
etzuen busti muturrik.

Eziñ sinistu izandu nuen
neskatxa horren esanik,
ta berak ere etzekiyen ni
zurruterua nitzanik;
alkarrengana bildu bagiña
etzan gurekin gauz onik;
jende gehiegik jakiñ ez dezan
ez det esango izenik,
oraindik ere soltera dago,
etzuen hartu gizonik.

AURKIBIDEA

## LANGILE BATEN SEME

Langile baten semea naiz ni,
aita bezela langile,
eguneroko ahaleginetan
soldata baten egile;
esku hutsik jaio eta
esku hutsikan nabile,
puntakoetan inor etzaigu
gertatu ongile. (bis)

Aita ta amak nahiko ninduten
fabrika batian,
bizitzarekin burrukatzeko
altzairu tartian;
bidetxiurretik noa,
agian nere kaltian,
baina ez det uste nabilenikan
horren apartian. (bis)

Izerdi asko ez det ixurtzen
larreko pendizan,
paper tartian murgildutako
zomorrua izan,
limosnatik bizi diren
umezurtz batzuen gisan
periodikuak ez dire gutaz
mintzatzen Parisan. (bis)

Horretan badet bizi geraden
herriyaren antza,
ezintasuna gallendu eta
bakardade latza;
hezurreraino sartua
galtzailearen arantza,
eromen kolpez berpiztu nahirik
gure esperantza. (bis)

Gitarra txar bat hartu nuen ta
hemen nabil deman
euskaldun zaharrok aspalditikan
beti dugun teman;
ardo mindua edanaz
hixtoriaren tabernan,
nahiz muturreko galanki jaso
bueltan eziñ eman. (bis)

Hamaika orru ta bertso arrunt
nauzute botia,
ez da errexa trebe txehetzen
euskaldun otia;
norbaitek esango balu
hobe nukela joatia,
neri berdin zait zuek hemen ta
ni hor egotia. (bis)

AURKIBIDEA

# ERROTA ZAHARRA

Errota zahar maitea
uraren ertzean,
uraren ertzean da
basati beltzean.
Negar egiten dezu
alea txetzean.
Ni ere triste nabil
zutaz oroitzean. (bis)

Zotin sekua dagi errotarriak
itzalitako izar dir-dirak
dira neretzat zure begiak.

Izar eder bat dago
hor goiko lepuan,
errota zaharra berriz
erreka zokuan.
Berebiziko pena
badaukat barruan,
ezin gintezke bizi
elkarren onduan. (bis)

Bizitzaren legea nahi det onartu
hala beharra kuraiez hartu
berez doana zertan behartu.

Errota zahar maitea
uraren ertzean,
uraren ertzean da
basati beltzean.
Negar egiten dezu
alea txetzean.
Ni ere triste nabil
zutaz oroitzean. (bis)
LALALARA...

AURKIBIDEA

## IZOTZ ONDOKO EGUZKI

Izotz-ondoko eguzki,
neguaren parre:
olerkariak noizbait
hiri goratzarre.
Emeki duk itxaroz piztu
garai-larre:
udaberri-lamiek
larreon batzarre.

Behetik nator,
ibarrak izoztuta utziaz,
mendia jaiez dago
urrezko jantziaz.
Haren parrea dadat
irrika biziaz,
gozatua baitu gaur
ezti bereziaz.

Udalenak irria
oi du zoro ozena:
udak, haragikoia;
udazkenak, bena;
negu-gau ozkarbien
izotz-ondorena
guztiz, bakarra duzu:
denetan emeena!

Bai-baitatza
eria ogean, herio
atzapar itsusia
luzatzen ario:
berpizkunde-berria
maiteak jario:
hitzik ezin ta irria
hain ezti dario!

Izotzak estali zuen
gure Euskalerria;
mintzo ozenak zabaldu
berpizkun berria.
Itzal-zokondoetan lore,
izotz-bitxia
baina gainetaz hari
jauntzen eguzkia.

AURKIBIDEA

# NI NAIZ

Ni naiz erreka zikinen iturri garbiak
aurkitu nahi dituen poeta tristea.

Ni naiz kaleetan zehar neguko
eguzkitan
lanera dijoan gizon bakartia

Ni naiz lorerik gabe gelditzen ari
den
ardaska lehorra.

Ni naiz pasio zahar guztiak kixkali
nahi dituen
bihotz iheskorra.

**Ez zaidazu galdetu gauza ilun**
**guztien arrazoi gordea,**
**nora ote dijoan denbora**
**aldakorrak daraman bidea,**
**daraman bidea.**

Ni naiz burrukaren erdian ilunpean
etsita
amor ematen duen pizti bakartia.

Ni naiz ezerezetik ihes munduaren
erdian
ezin aurkitutako amets urrutia.

Ni naiz irrifar bakoitzean gaztetasun
hondarrak
galtzen dituena.

Ni naiz itsasoko haizeak gogor
astintzen dituen
lainoen negarra.

**Ez zaidazu galdetu…**

Ni naiz txori hegalari bat lurtasun
zabarrari
etsipenez loturik daukadan katea.

Ni naiz beste asko bezela neguko
eguzkitan
hotzak hiltzen dagoen gizon
bakartia

Ni naiz hostorik gabe gelditzen ari
den
ardaska lehorra.

Ni naiz pasio zahar guztiak kixkali
nahi dituen
bihotz iheskorra.

**Ez zaidazu galdetu…**

AURKIBIDEA

# ALTZATEKO JAUN

Alzateko jaun hor zaude nunbait
zure lurrera itzultzeko zai.
Gure izatearen testigu zuzena
makurtu gabeko zuhaitz lerdena
desertuko haizeak legortu ez duen
lorea
itsasoaren kolorea, hor zaude zu.

**Hamasei salbe ta hamalau kredo**
**erderaz entzunagatik**
**bazenekizun hori ez zela sekulan**
**guretzat egin.**
**Urrezko dukat eta dirua ez dira**
**engainu txarra**
**bazter batera apartatzeko**
**lehengo sinismen zaharra.**

Merkatarien aldamenera amildegian
goitik behera
oharkabean eroriko gera:
bainan guztiok jakin dezagun bidea
nondik dijoan
Alzateko jaun, hor zaude zu.

**Bide batetik okertu gabe esan**
**dezagun bertsua**
**ixil-ixilik kanta dezagun**
**euskaldunen sekretua;**
**herri zahar baten oharpen haiek**
**nola ditugun galduak**
**zenbat itxura alda lezaken eguna**
**hil zuen gabak.**

Bidasoaren ezker-eskubi udaberrian
lore gorriak
ixilikako ur izkutua:
mendetan zehar kantu
leuna,noizpait latinez lurperatua
laister berpiztu behar duguna.

**Hamasei salbe ta hamalau kredo**
**erderaz entzunagatik**
**bazenekizun hori ez zela sekulan**
**guretzat egin.**
**Urrezko dukat eta dirua ez dira**
**engainu txarra**
**bazter batera apartatzeko**
**lehengo sinismen zaharra.**
**(lehenbizikua goitik, 2 behetik)**

Larhun gainean sorginen dantzak
nabaitzen ditut arratsaldean
lurrak badaki kontu hoien berri
eta hor dago ixil-ixilik.

Alzateko jaun hor zaude nunbait
zure lurrera itzultzeko zai.

AURKIBIDEA

# KONTRAPAS

Garaziko herria
benedika dadila
euskarari eman dio
behar zuen tornuia.

**Euskara, euskara,**
**jalgi hadi plazara.**

Bertze jendek uste zuten
ezin izkriba zaiteien
orai dute porogatu
enganatu zirela.

**Euskara, euskara,**
**ialgi hadi dantzara.**

Bertzeak orok izan dira
beren goien gradora
orai hura iganen da
bertze ororen gainera.

**Euskara, euskara,**
**ialgi hadi mundura.**

Orai daino egon bahiz
inprimitu bagerik
hi engoitik ebiliren
mundu guztietarik.

**Euskara, euskara,**
**ialgi hadi kanpora!**
**Euskara, euskara,**
**ialgi hadi plazara!**
**Euskara, euskara,**
**ialgi hadi dantzara!**
**Euskara, euskara,**
**habil mundu guztira!**

AURKIBIDEA

## HAIZEA DATOR

Haizea dator ifarraldetik,
hego berotik ekaitza,
ez da nabari lanbro artean
zuhaitz hautsien emaitza
eguneroko lagunak ditut
beldurra eta zalantza,
ardo txar honek eragiten dit
noraezeko balantza.

Itzal gaiztoak isurtzen dira
mendi hegaletan behera
argi apalak badoaz laster
bat-batean itzaltzera...
ez dut utzi nahi izen zehatzik
izengabetan galtzera
prestatzen gera etxe hustua
arrotz guziei saltzera.

Etxea hustuz badoa ere
noizbait bazuen biztunik,
ez dut onartzen ordez datorren
maizter aldrebes hiztunik...
inork ez baitu ausart hartu nahi
berezko karga astunik
gurdi okerra zuzen lezakeen
dotrinarikan ez dut nik.

Agur oihanak, agur itsaso,
atariko lizardia
imajinetan izkutatzen zait
hurbileko izadia
ur epeletan ixuriz doa
odolezko izerdia
irrintzi gorriz jauzika dator
irabazleen zaldia.

AURKIBIDEA

## LORE BAT, ZAURI BAT

Hire bihotza, txori zauritu,
iheska joan zain atseden bila.
Hari mehe bat hunan bizitza
urratua dun keinu bortitzez.
Oroitzapenen labe gorian
gorputz gogoak tormento luzez
kixkalirikan desegiñikan
bizi bahintzenan deserri hortan.

Nahiko hunan, Beatriz
Chile libre batean
adiskide artean
maitasuna dastatu.
Nahiko hunan zentzuak,
lore goiztarren gisan,
zorrik ordaindu gabe
desiotan askatu.

Hire aitaren heriotz hura
bilakatu zain orain heriotz
oihu lehertu bat utzi digunan
zauri guztien seinaletako.
Ez dun nahi izan iraganaren
faktura latza besteri itzul,
hainbeste beldur, hainbeste odol
isil-isilik pagatu ditun.

Nahiko hunan, Beatriz
poeta baten bertsoz
hire gaztetasuna
ispiluan mirestu.
Nahiko hunan gaur ere
bizitzaren kaliza
ardo gorriz beterik
gozamenetan hustu.

Errugabea hintzenan baina
pizti zordunak ez ditun urrun,
hire eskuen dardar hautsiak
haien ogena oihukatzen din.
Har zan atseden betiko loan,
gu gaitun orain mendekatzaile,
heriotz horren mezu gogorrik
ez baitinagu inoiz ahaztuko.

Nahiko hunan, Beatriz
Chile libre batean
adiskide artean
maitasuna dastatu.
Nahiko hunan zentzuak,
lore goiztarren gisan,
zorrik ordaindu gabe
desiotan askatu.

Nahiko hunan, Beatriz
poeta baten bertsoz
hire gaztetasuna
ispiluan mirestu.
Nahiko hunan gaur ere
bizitzaren kaliza
ardo gorriz beterik
gozamenetan hustu.

(bi aldiz biyek segidan)

AURKIBIDEA

# ITSASOAN URAK HAUNDI

Zazpi senideko famili batetan
arotza zen gure aita
gure herriko alkate ez izan arren,
lan egiten zuena. (bis)

**Itsasoan urak haundi dire,**
**murgildu nahi dutenentzat**
**gure herriko lanak haundi dire,**
**astun dire, gogor dire,**
**zatiturik gaudenentzat. (bis)**

Markatzen ari diren bide nabarra
ez da izango guretzat,
lehengo sokari ezarririk datorren
oztopo bat besterik.

**Itsasoan...(bis)**

Hainbeste mendetako gure morrontzak
baditu mila tankera
eta, zuhur aukeratzen ez badugu,
bertan galduko gera. (bis)

**Itsasoan...(BIS)**

AURKIBIDEA

## NAFARROA ARRAGOA

Nafarroa, arragoa,
argiaren pausaleku
haizearen ibil-toki zabal,
hesirik gabea.

Nafarroa, arragoa,
sua eta ura,
kondaira urratu baten oihartzun
oihukatua.

Amets bat baino gehiago,
ez oparotasun osoa:
nahiaren eta ezinaren burrukatoki
ekaitzez betea.

Nafarroa, arragoa
mahats eta gari
maitasun eta gorroto
gezur eta egia gurea.

Nafarroa, arragoa
lur beroen sabel emankorra
eta goiko mendi hotzen mendetako
loa.

Nafarroa, Nafarroa, zuhur eta eroa,
lurrik maitatuena,
hormarik gabe utzitako etxea:
erreka gardenen negarrez
ibai lodietara ixurtzen ari den
odol bustikoarraren iturri bizia.

Nafarroa, arragoa
izen bat eta oinarri
eta oinaze
eta bidean zure bila ibiltzea…

Pinudiek usaintzen dituzten
harri txigorrezko bidetan gora
o, Nafarroa, Nafarroa betikoa.

AURKIBIDEA

# GIZON ARRUNTAREN KOPLAK

Kantatzera noazu
bertso bat edo bi
herenegun jarriak
gizona arruntari.
Antoniyo, Lorentzo
edo Joxe Mari,
gauza ederra denik
ez ukatu neri.

Goizean jeikitzean
lehenbiziko gauza,
aba zabaldu eta
jazten ditut galtzak,
muturra garbitzean
nolako zalantzak
ezin kendurik nabil
loaren orratzak.

Kafesnia hartuta
horrekin batera
ahal baldin badet behintzat
noa komunera:
aurrian papera ta
atzian papera,
periodikua letuz
ilustratzen gera.

Etxetikan lanera
noa nahiko mantso.
Realak kuatro-uno
galdu zuen atzo,
kalian bi zakur ta
beste hiru atso,
egun on don Pepito
eta don Alfontso.

Gauzak gaizki dabiltza,
hau da komeriya,
Afganistan-en gerra
piztu zuten iya,
tokatzen baldin bazait
aurten loteriya
erosiko beharko det
Zitroen berriya…
Ongi egon omen zan
Tolosan periya.

Ongi ikasi nuen
gaztetan baltsian,
karterari kontutzen
txamarra galtzian:
Artxandako haiziak
beruak baizian,
ederki egoten zan
oyaren atzian.

Ni lana egina naiz
semiak hazteko,
haiek eskola ona
xuxen ikasteko,
ikasi eta gero
lanian hasteko,
ez dittezela izan
bazterrak nahasteko.

Semeen semetatik
baidatoz semiak,
batzuek arrak eta
bestiak emiak,
batzuek loiyak ta
beste batzuk miak:

AURKIBIDEA

horrela jarri zuen
Jaunaren legiak.

Gaurko eguna ere
bota degu, bada
gizon okupatua
gauza ederra da.
Asko gustatzen baitzait
oiluaren salda,
Mugairen hasten baita
Belateko malda.

Ez naiz ni gizon txarra,
baina, zer arraio,
Fidel Castro izateko
ez bainintzan jaio;
Musian egiten det
makina bat saio,
andriaren onduan
afaldu det iaio,
Musian egiten det
makina bat saio,
andriaren onduan
afaldu det iaio,
orain ohera noa
bihar arte aio.

AURKIBIDEA

# GIZA ABEREA

Makurka ta poliki, arrastaka bidean
bizkarrezurra oker zerbitzuko lanean,
zerbitzuko lanean burutik altxa gabe
munduan zehar doa giza-aberea.

Begiak lurrean ta ezer ikusi gabe
sudurrarekin usman usai txar bat irentsiz,
bihotz ustel usaia, odol ustel usaia
badoa ta badoa giza aberea.

Eskuak jaso eta haizerik ezin heldu
ezin ordu ihesen zatirik harrapatu,
itzalean zapaldu, marruez arrastaka
lokatzetan aztarka giza aberea.

Atzapar estuetan bizitzaren zatiak
otsoari burrukan garrasika kenduak
eta bazter batean urduri kozkatuak
munduan zehar doa giza aberea.

Zakurren ibillera, oihuz zaunka ta zaunka
zintzurrean loturik beldurraren gustoa
mingainetik zintzilik lotsa eta nekea
badoa ta badoa giza aberea.

Amets bat berotzeko astirik izan gabe,
iraungo duen egia bat ezin erditurik,
biraoka beteaz bere bakardadea
badoa ta badoa, heriotzaren billa giza aberea.

AURKIBIDEA

# NEGU HURBILAK

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan
izadiaren joan geldian
gizalditako lerroan
guztia present bihurtu arte
nor izanaren erroan.

Ez nau beldurtzen egunsentian
arnas zuridun izotzak
nun dirudien bizirik gabe
natura zabal hilotzak
eguzki eder joan guztien
argia baitu bihotzak
eta zentzuen milla ernegai
iraganaren oroitzak.

Ez nau larritzen azken orduan
arnasa galdu beharrak
bide xumea hesitu arren
amildegiaren larrak,
ardo berriak onduko ditu
mahastietan aihen zarrak
gure oraina arrazoiturik
beste batzuren biarrak.

Ez nau iluntzen baratzatikan
azken loreak biltzeak
muga guztien arrazoi billa
arnas gabe ibiltzeak
arratsaldeko argi betera
zentzu denak umiltzeak
atsedenezko loa baitakar
behin betirako hiltzeak.

AURKIBIDEA

# IZARREN HAUTSA

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabean noizpait giûaden gu ernai.
Eta horrela bizitzen gera sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu gabe: lana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera gogorki loturik gaude.

Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia,
burruka hortan bizi da eta hori du bere egia.
Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu,
jakintza eta argia; bide ilunak nekez aurkitu
lege berriak noizpait erditu, hortan jokatuz bizia.

Gizonen lana jakintza dugu: ezagutuz aldatzea,
naturarekin bat izan eta harremanentan sartzea.
Eta indarrak ongi errotuz, gure sustraiak lurrari lotuz,
bertatikan irautea: ezaren gudaz baietza sortuz,
ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea.

Ez dadukanak ongi ohi daki euketzea zein den ona,
bere premiak bete nahian beti bizi da gizona.
Gu ere zerbait bagera eta gauden tokitik hemendik bertan
saia gaitezen ikusten: amets eroak bazterturikan,
sasi zikinak behingoz erreta bide on bat aukeratzen.

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak,
burruka hortan iraungo duten zuhaitz-ardaska gazteak.
Beren aukeren jabe eraikiz ta erortzean berriro jaikiz
ibiltzen joanen direnak: gertakizunen indar ta argiz
gure ametsa arrazoi garbiz egiztatuko dutenak.

Eta egia bilakaturik ametsaren antziduri
herri zahar batek bide berritik ekingo dio urduri;
guztien lana guztien esku jasoko dute sendo ta prestu,
beren bizitzen edargai; **diru zakarrak bihotzik eztu,**
**lotuko dute gogor ta hestu haz ez dadin gizonen gain.**

AURKIBIDEA

# SEHASKA KANTA

Amaren bularra
haurraren janari,
haurraren negarra
beti hunkigarri;
baratz honen erdian
goseak nago ni,
zure bular laztanen
antsiz ta egarriz.

Zure bular politak
zerrien jostailu,
edertasunak kontuz
gorderik behar du;
zaude isilik, haurra!
ez egin negarrik,
munduak ez du-eta
malkoen beharrik.

Haunditzen zeranean
ikusiko duzu
isilik egoteak
zenbat balio dun;
jarrai zure bidetik,
hobe da horrela,
gauza denen gainetik,
haizea bezala.

Amaren bularra
haurraren janari,
aterpe samur hontan
lo hartu nahi dut nik.

AURKIBIDEA

# XALBADORREN HERIOTZEAN

Adiskide bat bazen orotan bihotzbera
poesiaren hegoek, sentimenduzko bertsoek
antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari bakardadez josia
hitzen lihoa iruten, bere barnean irauten
oinazez ikasia...ikasia

**Nun hago, zer larretan Urepeleko artzaina**
**mendi hegaletan gora, oroitzapen den gerora**
**ihesetan joan hintzana.**

Hesia urraturik libratu huen kanta
lotura guztietatik, gorputzaren mugetatik
aske sentitu nahirik.

Azken hatsa huela bertsorik sakonena
inoiz esan ezin diren, estalitako egien
oihurik bortitzena... bortitzena

**Nun hago, zer larretan Urepeleko artzaina**
**mendi hegaletan gora, oroitzapen den gerora**
**ihesetan joan hintzana.**

AURKIBIDEA

## NAGUSIYA TA MAIZTERRA

Orain artian ni izandu naiz,
aitona, zure nagusi,
errenta txintxo pagatu dezu
zere kapoi eta guzi;
zu baiño gizon umillaguak
ez dittut asko ikusi,
orain etxia saltzera guaz
nahi bazenduke erosi.

Larogei duro zuen errenta
etxeak orain artian,
zerorrek hala pagatu dezu
berrogeitamar urtian;
lenguan bertan gelditutzia
ez da neretzat kaltian,
bost milla duro balio ditu
iya konpondu gaitian.

Zer familia izandu degun
jauna nai al du aditu?
Hamabi aurren aita naiz ni ta
semiak hamar baditu,
lan egiteko iñor gutxi ta
mayian ezin kabitu,
baneukake non enpliatua
bost milla duro banitu.

Hau aditu ta beste aldera
bueltatu zen nagusiya,
esanaz “nik zer kulpa dadukat
zuk ume asko haziya;
ez dezu asko ixtimatzen nik
egin dizudan graziya,
zuek artu nahi ez badezute
bada zeiñek erosiya”.

Eskerrikasko, nagusi jauna,
pakian bihaugu bizi,
baiña hizketan bukatu arte
ez bedi juan igesi;
klaro dabillen gizonak ez du
arrazoi txarrik merezi,
nahi duenari saldu bezaio,
guk ezkentzake erosi.

Aziendaz ta lan-erremintaz
bagenedukan indarra,
haiekin ere ez degu orain
oso alderdi ederra...
zazpi balio luteken gauzak
bostian eman biharra,
hau pentsatzian etortzen zaigu
begiyetara negarra.

Hamabi lagun mayian bueltan
juntatzen gera jateko,
gehienaz ere haietatik bost
irabazira juateko;
pazientziya hartuko banu
hanbat ez nuke kalteko,
Jaungoikuari eska zaiogun
osasuna emateko.

Prezisamente martxatu biaugu
baserri edo kalera,
norbaiti egin beharko zaio
bizilekuen galdera
esplikatuaz nola izan den
fameliyaren galera;
gure Jainkuak nahi duen arte
nonbait mantenduko al gera! (bis)

## AURKIBIDEA